



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2020ko apirilaren 28a

48. ZK.

A U R K I B I D E A

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, salbuespenezko hiruhileko honen ondorioz erlijio-irakasgaiaren eta haren ordezkoen ordu-zama murrizteari eta ikasleen hezkuntza-premiei erantzuteko indartze-neurriak ezartzeari buruzkoa. María Luisa De Simón Caballero andreak egin du (3. or.).
- Galdera, Iruñean familia ugari bizi duten pilamendu-egoera dela-eta etxebizitza duin bat lortzearen arloan hartuko diren neurri buruzkoa. Mikel Buil García jaunak egin du (4. or.).
- Galdera, jakiteko ea Pizgarri Berdeko Planik egingen al den osasun-krisitik irteteko. Mikel Buil García jaunak egin du (4. or.).
- Galdera, Nafarroan moteltze-neurrien plana kudeatzeko neurri buruzkoa. Uxue Barkos Berruezo andreak egin du (5. or.).
- Galdera, Nafarroak Euroeskualdearen bidez kudeatzen dituen deialdietan Covid-19aren krisiak izanen duen inpaktuari buruzkoa. Uxue Barkos Berruezo andreak egin du (6. or.).
- Galdera, Covid-19aren krisiari aurre egiteko Landa Garapeneko eta Ingurumeneko departamentua lehen sekorearekin eta nekazaritzako elikagaien industriarekin lantzen ari den neurri buruzkoa. Uxue Barkos Berruezo andreak egin du (6. or.).
- Galdera, suspertze eta berreraikuntza ekonomiko eta sozialerako plana taxutzeko prozesuko lan-dinamikari buruzkoa. José Javier Esparza Abaurrea jaunak egin du (7. or.).
- Galdera, alarma egoera eta salbuespen-neurriak bukatzen direnean lan-egoerari aurre egiteko eta enplegua mantentzeko ezarriko diren neurri buruzkoa. Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea jaunak egin du (7. or.).
- Galdera, moteltze neurrietarako planari buruzkoa. José Javier Esparza Abaurrea jaunak egin du (8. or.).
- Galdera, gaixo kritikoen beharizaneiei erantzuteko eman diren estimazio eta baliabideei buruzkoa. Cristina Ibarrola Guillén andreak egin du (9. or.).
- Galdera, Covid-19aren osasun-krisiari aurre egiteko beharrezkoa den material sanitarioa erosi ahal izatea bermatzeko egin diren zuzemenei buruzkoa. Cristina Ibarrola Guillén andreak egin du (9. or.).

- Galdera, ikasturte hau etapa guztietan bukatzeari buruzkoa, eta oso bereziki, unibertsitatean sartzeko ebaluazio-proba egin behar duten ikasleei buruzkoa. Pedro José González Felipe jaunak egin du (10. or.).
- Galdera, jakiteko zer babes-neurri hartu ahal izan ziren lehenago zahar-etxeetako eta desgaitasuna duten pertsonen egoitzetako egoiliarrekin eta profesionalekin, Covid-2019aren krisiaren ondorioz sorturiko egoera saiheste aldera. Marta Álvarez Alonso andreak egin du (10. or.).
- Galdera, Covid-19ak eragindako krisia kontuan hartuta Foru Ogasunak 2019ko ekitaldiko PFEZaren kanpaina gauzatzeko aurreikusi dituen bitarteko eta jarduketei buruzkoa. Ramón Alzórriz Goñi jaunak egin du (11. or.).
- Galdera, moteltze-neurrien fasearen aurrean Nafarroak duen egoerari buruzkoa. Ramón Alzórriz Goñi jaunak egin du (11. or.).
- Galdera, “moteltze-neurrien plana” kudeatzeari buruzkoa. Bakartxo Ruiz Jaso andreak egin du (12. or.).
- Galdera, gelatan pilatuta, beste pertsona batzuekin partekaturiko etxebizitzetan bizi diren familiei aukerak eskaintzeari buruzkoa. María Luisa De Simón Caballero andreak egin du (12. or.).
- Galdera, Hezkuntza Departamentuak emandako jarraibideekin eta jarritako bitartekoekin ikasturtea baldintza egokietan amaitzeari buruzkoa. Bakartxo Ruiz Jaso andreak egin du (13. or.).
- Galdera, sektore ahulenen eta eskubide gutxienekoen –hala nola migratzaileak eta askatasunaz gabeturiko pertsonak– oinarritzko giza eskubideak, osasunerako eskubidea barne, bermatzeko neurriei buruzkoa. Patricia Perales Hurtado andreak egin du (14. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuak aurreikusten duen agertoki ekonomikoari eta hartuko diren erabakiei buruzkoa. Ramón Alzórriz Goñi jaunak egin du (14. or.).
- Galdera, gure erkidegoan genero indarkeriaren biktima diren emakumeen beharrezanean erantzuteko eta konfinamenduan haien segurtasuna bermatzeko hartuko diren neurriei buruzkoa. Ramón Alzórriz Goñi jaunak egin du (15. or.).

G SAILA:**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- Covid-19ari aurre egiteko kontingentzia-planaren babesean 2020ko apirilaren 8ko bilkuran hartutako ohiz kanpoko euste-neurrietako lehen hiru neurriak aldatzea (16. or.).

F saila:
GALDERAK

Galdera, salbuespeneko hiruhileko honen ondorioz erlijio-irakasgaiaren eta haren ordezkoen ordu-zama murrizteari eta ikasleen hezkuntza-premiei erantzuteko indartze-neurriak ezartzeari buruzkoa.

MARÍA LUISA DE SIMÓN CABALLERO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko apirilaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Luisa De Simón Caballero andreak aurkeztutako galdera, salbuespeneko hiruhileko honen ondorioz erlijio-irakasgaiaren eta haren ordezkoen ordu-zama murrizteari eta ikasleen hezkuntza-premiei erantzuteko indartze-neurriak ezartzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2020ko apirilaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoko parlamentari Marisa De Simón Caballero andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Parlamentu honen hurrengo Osoko Bilkuran ahoz erantzun dakion.

Alarma-egoera eta konfinamendua deklaratzeari eta, horrenbestez, hezkuntza-etapa guztietako eskolak aldi baterako etetea, eskolen ordezkuntza-arreta ez presentziala ematen ari da. Heldu den ikasturtea nahitaez egokitu beharko zaio egoera honi, zeinak modu desberdinean eragiten baitie egoera sozioekonomiko, kultural, intelektual edota afektibo-emozional prekarioan daudenei. Argi dago urteko programazioetan aurreikusita ez zeuden trebetasunak bereganatu eta gaitasunak garatu dituztela ikasleek. Halere, badira egoera honetan behar bezala jorratu ezin izan diren bestelako ezagutza-esparru batzuk eta

ikaskuntza-irakaskuntza prozesuaren beste esparru batzuk.

Gauzak horrela, ikasleek bestelako hezkuntza-neurri eta -estrategiak beharko dituzte, orokorrak zein banakakoak, goragoko ikaskuntzetara heltzeko beharrezkoak diren ikaskuntzak bereganatzeko zer bilakaera duten kontuan hartuta. Hortaz, 2020-2021 ikasturtean egin beharreko egokitzapen horri begira neurriak hartu beharko dira curriculumaren, antolakuntzaren eta egituraren arloetan.

Iragan martxoaren 4an, Izquierda-Ezkerrak aurkeztutako mozio bat onetsi zuen Parlamentu honek; haren bidez, Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamentua premiatu zen abiarazi beharreko izapideak abiaraz zitzaizkion, erlijio-irakasgaiaren eta haren ordezkoen irakaskuntza lege ezarritako minimora murriztu dadin, halako moduan non 2020-2021 ikasturtea murrizketa hori aplikatuta has dadin eta curriculum-espazio libre hori, ikasle guztiek izan behar dutena, funtsezko edukia jorratzeko balia dadin.

Gure ustez, une honetan are eta beharrezkoagoa da irakasgai horren ordu-zama murriztea eta ordu horiek arlo instrumentalak indartzeko, aniztasunari erantzuteko edo salbuespeneko hiruhileko honen ondoriozko hezkuntza-premiei erantzuteko erabiltzea.

Galdera:

Hezkuntza Departamentuak aurreikusi al ditu aldatu beharreko arauak erlijio-irakasgaiaren eta haren ordezkoen irakaskuntza lege ezarritako minimora murrizteko, eta ba al du asmorik ordu-zama murriztetik ateratzen diren orduak salbuespeneko hiruhileko honen ondoriozko hezkuntza-premiei erantzuteko inbertitzeko?

Iruñean, 2020ko apirilaren 27an

Foru parlamentaria: Marisa De Simón Caballero

Galdera, Iruñean familia ugarik bizi duten pilamendu-egoera dela-eta etxebizitza duin bat lortzearen arloan hartuko diren neurrei buruzkoa.

MIKEL BUIL GARCÍA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko apirilaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Mikel Buil García jaunak aurkeztutako galdera, Iruñean familia ugarik bizi duten pilamendu-egoera dela-eta etxebizitza duin bat lortzearen arloan hartuko diren neurrei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2020ko apirilaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Podemos-Ahal Dugu parlamentarien elkarteko eledun Mikel Buil jaunak gaurkotatsun handiko honako galdera hau aurkeztu du apirilaren 30eko Osoko Bilkurarako.

Egiaztaturik geratu denez Iruñeko familia ugarik bizi duten pilamendu-egoera (infraetxeetan bizitzera behartuak eta, hortaz, egungo osasun-krisian adostutako gutxieneko segurtasun-neurriak bete ezinik) Nafarroako Gobernu Etxebizitza Departamentuak zer neurri har dezake herritarrek etxebizitza duin bat izatearen arloan Iruñeko Udaleko gobernu-taldeak erakutsitako utzikeria zuzentzeko?

Iruñean, 2020ko apirilaren 26an

Foru parlamentaria: Mikel Buil García

Galdera, jakiteko ea Pizgarri Berdeko Planik egingen al den osasun-krisitik irteteko.

MIKEL BUIL GARCÍA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko apirilaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Mikel Buil García jaunak aurkeztutako galdera, jakiteko ea Pizgarri Berdeko Planik egingen al den osasun-krisitik irteteko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2020ko apirilaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Podemos-Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteari atxikitako foru parlamentari Mikel Buil García jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galde-

ra hau aurkeztu du, Landa Garapeneko eta Ingu-rumeneko kontseilariak hurrengo Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Covid-19aren inpaktua gainditzeko pizgarri ekonomikoen estrategietan uztartu egiten dira puntako teknologietan inbertitzea eta herrilanak, baina ez dira aipatzen bestelako ekimen batzuk; esate baterako, energia berriztagarriak edo bestelako programa jasangarri batzuk.

Orain dagokiguna da mahai gainean jartzea Pizgarri Berdeko Plan bat proposatzeko eta onesteko legegintza-lan bat eta eztabaida politiko bat, ekonomia berreraikitzen den bitartean lana sortu-ko duena eta klima-larrialdiari aurre egingen diona.

Beste autonomia erkidego batzuetan inguru-menaren arloko araudia modu basatian eraisten ari direlako adibideen olatua ikusita, Pizgarri Berdeko Planik egingen al da osasun-krisitik irteteko?

Iruñean, 2020ko apirilaren 26an

Foru parlamentaria: Mikel Buil García

Galdera, Nafarroan moteltze-neurrien plana kudeatzeko neurriei buruzkoa.

UXUE BARKOS BERRUEZO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko apirilaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Uxue Barkos Berruezo andreak aurkeztutako galdera, Nafarroan moteltze-neurrien plana kudeatzeko neurriei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2020ko apirilaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioaren eledun Uxue Barkos Berruezo andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak apirilaren 30eko Osoko bilkuran ahoz erantzun dezan:

Gobernu zentralak moteltze-neurrien prozesua heldu den maiatzaren 2an abiaraziko duela ikusita, zer neurri hartuko dira erabaki hori gure erkidegoan kudeatzeko?

Iruñean, 2020ko apirilaren 26an

Foru parlamentaria: Uxue Barkos Berruezo

Galdera, Nafarroak Euroeskualdearen bidez kudeatzen dituen deialdietan Covid-19aren krisiak izanen duen inpaktuari buruzkoa.

UXUE BARKOS BERRUEZO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko apirilaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Uxue Barkos Berruezo andreak aurkeztutako galdera, Nafarroak Euroeskualdearen bidez kudeatzen dituen deialdietan Covid-19aren krisiak izanen duen inpaktuari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2020ko apirilaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioaren eledun Uxue Barkos Berruezo andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko Herritarrekiko Harremanetarako kontseilariak apirilaren 30eko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Covid-19aren krisiak zer inpaktu izanen du Nafarroak Euroeskualdearen bidez kudeatzen dituen deialdietan?

Iruñean, 2020ko apirilaren 26an

Foru parlamentaria: Uxue Barkos Berruezo

Galdera, Covid-19aren krisiari aurre egiteko Landa Garapeneko eta Ingurumeneko departamentua lehen sekorearekin eta nekazaritzako elikagaien industriarekin lantzen ari den neurriei buruzkoa.

UXUE BARKOS BERRUEZO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko apirilaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Uxue Barkos Berruezo andreak aurkeztutako galdera, Covid-19aren krisiari aurre egiteko Landa Garapeneko eta Ingurumeneko departamentua lehen sekorearekin eta nekazaritzako elikagaien industriarekin lantzen ari den neurriei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2020ko apirilaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioaren eledun Uxue Barkos Berruezo andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak apirilaren 30eko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Covid-19aren krisiak bereziki agerian utzi du zer garrantzitsuak diren lehen sekorea eta nekazaritzako elikagaien industria, ez soilik Nafarroaren ekonomian, ezpada krisi honetatik irteteko funtsezko sektore diren aldetik duten ahalmenean ere. Hori dela eta, departamentua zer neurri ari da sektorearekin jorratzen?

Iruñean, 2020ko apirilaren 26an

Foru parlamentaria: Uxue Barkos Berruezo

Galdera, suspertze eta berreraikuntza ekonomiko eta sozialerako plana taxutzeko prozesuko lan-dinamikari buruzkoa.

JOSÉ JAVIER ESPARZA ABAURREA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko apirilaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José Javier Esparza Abaurrea jaunak aurkeztutako galdera, suspertze eta berreraikuntza ekonomiko eta sozialerako plana taxutzeko prozesuko lan-dinamikari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2020ko apirilaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen José

Javier Esparza Abaurrea jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak lehendakariak hurrengo Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak iragarri du Nafarroako Foru Komunitaterako suspertze eta berreraikuntza ekonomiko eta sozialerako plan bat prestatzen ari dela.

Zein izanen da lan-dinamika plana taxutzeko prozesuan (lan-ildoak, lan-egutegia eta, herritar guztien ordezkari diren aldetik, alderdi politikoen lankidetzeta eta parte-hartze esparrua)?

Iruñean, 2020ko apirilaren 26an

Foru parlamentaria: José Javier Esparza Abaurrea

Galdera, alarma egoera eta salbuespen-neurriak bukatzen direnean lan-egoerari aurre egiteko eta enplegua mantentzeko ezarriko diren neurriei buruzkoa.

CARLOS PÉREZ-NIEVAS LÓPEZ DE GOICOECHEA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko apirilaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea jaunak aurkeztutako galdera, alarma egoera eta salbuespen-neurriak bukatzen direnean lan-egoerari aurre egiteko eta enplegua mantentzeko ezarriko diren neurriei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2020ko apirilaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak lehendakariak hurrengo Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Garapen Ekonomikorako kontseilariak eman dako datuen arabera, Nafarroan aurkeztu diren aldi baterako enplegu-erregulazioko espedienteek 55.000 langile baino gehiago ukitzen dituzte. Kontuan hartzen baditugu bai Espainiako bai nazioarteko adierazle guztiak, zeinen arabera mantsoa eta progresiboa izanen baita susperraldia, bai industrian, bai zerbitzuen sektorean; bereziki, ostalaritzan eta turismoan. Nafarroako Gobernuak

zer neurri ezarri nahi ditu lan-egoerari aurre egiteko eta enplegua mantentzeko alarma egoera nahiz alarma egoeran ezarritako salbuespenezko neurriak bukatzen direnean?

Iruñean, 2020ko apirilaren 26an

Foru parlamentaria: Carlos Pérez-Nievas
López de Goicoechea

Galdera, moteltze neurrietarako planari buruzkoa.

JOSÉ JAVIER ESPARZA ABAURREA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko apirilaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José Javier Esparza Abaurrea jaunak aurkeztutako galdera, moteltze neurrietarako planari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2020ko apirilaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen José Javier Esparza Abaurrea jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak hurrengo Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak moteltze neurrietarako zer plan aurkeztu du?

Iruñean, 2020ko apirilaren 26an

Foru parlamentaria: José Javier Esparza
Abaurrea

Galdera, gaixo kritikoen beharriari erantzuteko eman diren estimazio eta baliabideei buruzkoa.

CRISTINA IBARROLA GUILLÉN ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko apirilaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina Ibarrola Guillén andreak aurkeztutako galdera, gaixo kritikoen beharriari erantzuteko eman diren estimazio eta baliabideei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2020ko apirilaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Cristina Ibarrola Guillén andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak Osasuneko kontseilariak hurrengo Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak zer estimazio eta baliabide izan ditu gaixo kritikoen beharriari erantzuteko?

Iruñean, 2020ko apirilaren 26an

Foru parlamentaria: Cristina Ibarrola Guillén

Galdera, Covid-19aren osasun-krisiari aurre egiteko beharrezkoa den material sanitarioa erosi ahal izatea bermatzeko egin diren zuzemenei buruzkoa.

CRISTINA IBARROLA GUILLÉN ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko apirilaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina Ibarrola Guillén andreak aurkeztutako galdera, Covid-19aren osasun-krisiari aurre egiteko beharrezkoa den material sanitarioa erosi ahal izatea bermatzeko egin diren zuzemenei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2020ko apirilaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Cristina Ibarrola Guillén andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak Osasuneko kontseilariak hurrengo Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Osasun Departamentuak zer zuzemen egin du Covid-19aren osasun-krisiari aurre egiteko beharrezkoa den material sanitarioa erosi ahal izatea bermatzeko?

Iruñean, 2020ko apirilaren 26an

Foru parlamentaria: Cristina Ibarrola Guillén

Galdera, ikasturte hau etapa guztietan bukatzeari buruzkoa, eta oso bereziki, unibertsitatean sartzeko ebaluazio-proba egin behar duten ikasleei buruzkoa.

PEDRO JOSÉ GONZÁLEZ FELIPE JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko apirilaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Pedro José González Felipe jaunak aurkeztutako galdera, ikasturte hau etapa guztietan bukatzeari buruzkoa, eta oso bereziki, unibertsitatean sartzeko ebaluazio-proba egin behar duten ikasleei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2020ko apirilaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Pedro González Felipe jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko Hezkuntzako kontseilariak hurrengo Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak nola bukatu nahi du ikasturte hau etapa guztietan eta, bereziki, unibertsitatean sartzeko ebaluazio-proba egin behar duten ikasleen kasuan?

Iruñean, 2020ko apirilaren 26an

Foru parlamentaria: Pedro González Felipe

Galdera, jakiteko zer babes-neurri hartu ahal izan ziren lehenago zahar-etxeetako eta desgaitasuna duten pertsonen egoitzetako egoiliarrekin eta profesionalekin, Covid-2019aren krisiaren ondorioz sorturiko egoera saiheste aldera.

MARTA ÁLVAREZ ALONSO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko apirilaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Marta Álvarez Alonso andreak aurkeztutako galdera, jakiteko zer babes-neurri hartu ahal izan ziren lehenago zahar-etxeetako eta desgaitasuna duten pertsonen egoitzetako egoiliarrekin eta profesionalekin, Covid-2019aren krisiaren ondorioz sorturiko egoera saiheste aldera.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2020ko apirilaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Marta Álvarez Alonso andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko Eskubide Sozialetako kontseilariak hurrengo Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuaren ustez, zer babes-neurri hartu ahal izan zituen lehenago zahar-etxeetan eta desgaitasuna duten pertsonen egoitzetan Covid-2019aren krisiaren ondorioz sorturiko egoera saiheste aldera?

Iruñean, 2020ko apirilaren 26an

Foru parlamentaria: Marta Álvarez Alonso

Galdera, Covid-19ak eragindako krisia kontuan hartuta Foru Ogasunak 2019ko ekitaldiko PFEZaren kanpaina gauzatzeko aurreikusi dituen bitarteko eta jarduketei buruzkoa.

RAMÓN ALZÓRRIZ GOÑI JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko apirilaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ramón Alzórriz Goñi jaunak aurkeztutako galdera, Covid-19ak eragindako krisia kontuan hartuta Foru Ogasunak 2019ko ekitaldiko PFEZaren kanpaina gauzatzeko aurreikusi dituen bitarteko eta jarduketei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2020ko apirilaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioaren eledun Ramón Alzórriz Goñi jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak apirilaren 30eko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan.

Covid-19aren pandemiak eragindako egoera berezia dela-eta,

Covid-19ak eragindako krisia kontuan hartuta, zer bitarteko eta zer jarduketa aurreikusi ditu Foru Ogasunak 2019ko ekitaldiko PFEZaren kanpaina gauzatzeko?

Iruñean, 2020ko apirilaren 26an

Foru parlamentaria: Ramón Alzórriz Goñi

Galdera, moteltze-neurrien fasearen aurrean Nafarroak duen egoerari buruzkoa.

RAMÓN ALZÓRRIZ GOÑI JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko apirilaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ramón Alzórriz Goñi jaunak aurkeztutako galdera, moteltze-neurrien fasearen aurrean Nafarroak duen egoerari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2020ko apirilaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioaren eledun Ramón Alzórriz Goñi jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuak apirilaren 30eko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan.

Zein egoeratan dago Nafarroa moteltze-neurriak aplikatzeko prozesuari ekiteko?

Iruñean, 2020ko apirilaren 26an

Foru parlamentaria: Ramón Alzórriz Goñi

Galdera, “moteltze-neurrien plana” kudeatzeari buruzkoa.

BAKARTXO RUIZ JASO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko apirilaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bakartxo Ruiz Jaso andreak aurkeztutako galdera, “moteltze-neurrien plana” kudeatzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2020ko apirilaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Bakartxo Ruiz Jaso andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuako lehendakari María Chivite Navascués andreak ahoz erantzun dezan:

Nola eta zer parte-hartzearekin ari da kudeatzen Nafarroako Gobernua taxutzen ari den moteltze-neurrien plana? Zer irizpiderekin eta nola ezarri asmo duzue estrategia propio bat, Espainiako Gobernuak prozesuaren zuzendaritzaren aginte bateratuari buruz egin dituen adierazpenak ikusirik?

Foru parlamentaria: Bakartxo Ruiz Jaso

Galdera, gelatan pilatuta, beste pertsona batzuekin partekaturiko etxebizitzetan bizi diren familiei aukerak eskaintzeari buruzkoa.

MARÍA LUISA DE SIMÓN CABALLERO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko apirilaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Luisa De Simón Caballero andreak aurkeztutako galdera, gelatan pilatuta, beste pertsona batzuekin partekaturiko etxebizitzetan bizi diren familiei aukerak eskaintzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2020ko apirilaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoko parlamentari Marisa De Simón Caballero andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Parlamentu honen hurrengo Osoko Bilkuran ahoz erantzun dakion.

Hipotekek Kaltetutakoen Plataformak eginiko salaketa baten bidez, duela gutxi jakin dugu zenbait herritan badirela familiak, guraso bakarrekoko kasu gehienetan, migratzaileak eta seme-alaba bat baino gehiago dituztenak, gelatan pilatuta bizi direnak, beste pertsona eta familia batzuekin partekaturiko etxebizitzetan.

Egoera horiek, berez dramatikoak badira ere, are okerragoak dira, zalantzarik gabe, egungoa bezalako konfinamendu-egoera batean, non egunetik egunera baldintza horietan bizi behar duten.

Hipotekek Kaltetutakoen Plataformak salatu duenez, familia horien arazo nagusia da alokairuko etxebizitza publikoen falta etxebizitza duin bat eskuratu ahal izateko, batez ere Iruñean.

Egoera hau ulertzina da, administrazio desberdinek etxebizitza hutsak baitituzte; esate baterako, Iruñeko Udalak ehundik gora etxebizitza huts dauzka.

Nafarroako Gobernuako Lurralde Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako Departamentuak aurreikusi al du familia horientzako etxebizitza-aukerarik eskaintzea edo, halakorik ezean, etxebizitza publikoak dituzten

udalekiko bitartekaritza-jarduketarik edo esku-har-
tzerik gauzatzea?

Iruñean, 2020ko apirilaren 27an

Foru parlamentaria: Marisa De Simón Caballero

Galdera, Hezkuntza Departamentuak emandako jarraibideekin eta jarri- tako bitartekoekin ikasturtea baldintza egokietan amaitzeari buruz- koa.

BAKARTXO RUIZ JASO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko apirilaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bakartxo Ruiz Jaso andreak aurkeztutako galdera, Hezkuntza Departamentuak emandako jarraibideekin eta jarritako bitartekoekin ikasturtea baldintza egokietan amaitzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2020ko apirilaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Bakartxo Ruiz Jaso andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak uste du Hezkuntza Departamentuak emandako jarraibideekin eta jarritako bitartekoekin ikasle guztiak gai izanen direla ikasturtea baldintza egokietan amaitzeko?

Foru parlamentaria: Bakartxo Ruiz Jaso

Galdera, sektore ahulenen eta eskubide gutxienekoen –hala nola migratzaileak eta askatasunaz gabeturiko pertsonak– oinarrizko giza eskubideak, osasunerako eskubidea barne, bermatzeko neurriei buruzkoa.

PATRICIA PERALES HURTADO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko apirilaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patricia Perales Hurtado andreak aurkeztutako galdera, sektore ahulenen eta eskubide gutxienekoen –hala nola migratzaileak eta askatasunaz gabeturiko pertsonak– oinarrizko giza eskubideak, osasunerako eskubidea barne, bermatzeko neurriei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2020ko apirilaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Patricia Perales Hurtado andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak ahoz erantzun dezan:

Zer neurri hartu ditu eta hartuko ditu Nafarroako Gobernuak egungo egoeran sektore ahulenen eta eskubide gutxien dituzten pertsonen –hala nola migratzaileak eta askatasunaz gabeturiko pertsonak– oinarrizko giza eskubideak bermatzeko?

Foru parlamentaria: Patricia Perales Hurtado

Galdera, Nafarroako Gobernuak aurreikusten duen agertoki ekonomikoari eta hartuko diren erabakiei buruzkoa.

RAMÓN ALZÓRRIZ GOÑI JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko apirilaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ramón Alzórriz Goñi jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Gobernuak aurreikusten duen agertoki ekonomikoari eta hartuko diren erabakiei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2020ko apirilaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioaren eledun Ramón Alzórriz Goñi jaunak, Legebiltzarreko Erregelamendua ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak apirilaren 30eko Osoko Bilkuran ahoz erantzuteko.

Covid-19aren krisiari aurre egiteko gastuak areagotu direla ikusita eta dirusarrerak jaitziko direla aurreikusita,

Nafarroako Gobernuak zer agertoki ekonomiko aurreikusiten dute Covid-19aren krisiaren eraginez eta zer erabaki hartuko ditu arlo ekonomikoan?

Iruñean, 2020ko apirilaren 26an

Foru parlamentaria: Ramón Alzórriz Goñi

Galdera, gure erkidegoan genero indarkeriaren biktima diren emakumeen beharriaz erantzuteko eta konfinamenduan haien segurtasuna bermatzeko hartuko diren neurri buruzkoa.

RAMÓN ALZÓRRIZ GOÑI JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko apirilaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ramón Alzórriz Goñi jaunak aurkeztutako galdera, gure erkidegoan genero indarkeriaren biktima diren emakumeen beharriaz erantzuteko eta konfinamenduan haien segurtasuna bermatzeko hartuko diren neurri buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2020ko apirilaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioaren eledun Ramón Alzórriz Goñi jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuak apirilaren 30eko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan.

Covid-19aren pandemiak eragindako egoera berezia dela-eta,

Zer neurri hartu ditu Nafarroako Gobernuak gure erkidegoan genero indarkeriaren biktima diren emakumeen beharriaz erantzuteko eta konfinamenduan haien segurtasuna bermatzeko?

Iruñean, 2020ko apirilaren 26an

Foru parlamentaria: Ramón Alzórriz Goñi

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Covid-19ari aurre egiteko kontingentzia-planaren babesean 2020ko apirilaren 8ko bilkuran hartutako ohiz kanpoko euste-neurrietako lehen hiru neurriak aldatzea.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko apirilaren 24an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

2020ko martxoaren 16an eta 27an egindako bilkuretan, Lehendakariak proposatuta, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, Covid-19 koronabirusari aurre egiteko kontingentzia-planaren osagarri diren ohiz kanpoko euste-neurriak onetsi zituen, eta neurri horiek 2020ko apirilaren 8an aldatu ziren.

Diputatuen Kongresuak apirilaren 22an egindako bilkuran 2020ko apirilaren 27tik maiatzaren 9ra bitarte luzatu zuenez martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretua, zeinaren bidez alarma-egoera deklaratzeko baita Covid-19ak eragindako osasun-krisia kudeatzeko, eta beharrezkoa izanik egoera horri egokitu gakisizkion, ERABAKI DA:

1.- Covid-19ari aurre egiteko kontingentzia-planaren babesean 2020ko apirilaren 8ko bilkuran hartutako ohiz kanpoko euste-neurrietako lehen hiru neurriak aldatzeko erabakia hartzea. Hona:

“1. Jarduera parlamentarioa murriztea.

Jarduera parlamentarioa murriztu egiten da 2020ko apirilaren 27tik maiatzaren 9ra bitartean, biak barne, eta murriztapen hori luzatzen ahalko da, baldin eta aurrez Mahaiak eta Eledunen Batzarrak erabaki hori hartzen badute.

Hala eta guztiz ere, epe horretan zilegi izanen da Mahaiak eta Eledunen Batzarrak beharrezkotzat jotzen diren bilkurak egin ditzaten; bilera horiek bideokonferentziaz egiten dira. Halaber, bilkura presentzial bat egiten da astelehenetan (apirilaren 27an eta maiatzaren 4an), asteko jarduera parlamentarioa nahiz tramitatze moduko gaiak izapidetu eta antolatze. Bilkura horiek osoko bilkuren aretoan egiten dira.

Bilkura horiek bukatutakoan, prentsaurreko presentziala emanen dute eledunek Osoko Bilkuren aretoan bertan, hedabideek igorritako galderei erantzuteko.

Gainera, apirilaren 28an eta 29an Osasun Batzordea eta Eskubide Sozialetako Batzordea bilduko dira, kasuko kontseilariak agerraldia egin dezaten. Batzorde horien bilkurak Osoko Bilkuren aretoan egiten dira. Parte-hartzea murriztu egiten da, honako hauek bakarrik hartuko baitute parte: batzordeburua, talde edo elkarte bakoitzeko ordezkari bat eta agerraldia egin behar duen kontseilaria, segurtasun-berme guztiak betez.

Eta Osoko Bilkura egiten da apirilaren 30ean eta maiatzaren 7an. Osoko Bilkura, koronabirusari buruzkoa, kontrolekoa, legegintzako edo mistoa (legegintzako edo kontrolekoa) izaten ahalko da, non honako ekimen hauek izapidetuko baitira:

- Gobernuaren baliozkotu beharreko ekimena(k).
- Covidari buruzko ahozko galderak, egungo kupoen arabera.

Hori guztia gorabehera, Lehendakariak, Mahaiak eta Eledunen Batzarrak zilegi izanen dute aintzat hartzea beste organo parlamentario batzuen bilkura zehatzetarako deialdia egitea, baldin eta beharrezkotzat jotzen badira egungo egoerarengatik; kasu horretan, segurtasuna bermatu egiten da bilera horietan, egokitzen jotzen diren bideak erabiliz.

Hartara, Mahaiaren eta Eledunen Batzarraren bilkura presentziala edo kontroleko Osoko Bilkura egiten ez den astearen hurrengo asteko bi egunetan bi agerraldi egiten ahalko dira, eskaria aldeztu aurretik eginda.

2. Izapideak eta epeak etetea.

Parlamentariak ezarri diren bide telematikoak baliatuta erregistratzen ahalko dituzte ekimenak.

Hala ere, luzatu egiten da Mahaiak eta Eledunen Batzarrak 2020ko martxoaren 16an adostutako gai parlamentario guztien izapideen etendura, baita haien epeak ere. Etete hori amaitu egiten da Covid-19ko krisiak sortutako ezohiko egoera honi amaiera ematen zaionean.

Halere, berrabiatu egiten dira Nafarroako Gobernua kontrolatzeko ekimen hauek direla-eta eten ziren epeak: galdera idatziak (PES), ahozko galderak (POR), informazio-eskariak (PEI) eta Nafarroako Gobernuaren agerraldiak (COM), Covid-19ak eragindako pandemia-krisiaren kudeaketari dagokionez.

Administrazio-eppei dagokienez, etenda gertzen dira, martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuak hirugarren xedapen gehigarrian ezarzen duenaren arabera, (Errege Dekretuak alarma-egoera deklaratzeko, Covid-19ak eragindako osasun-krisiaren egoera kudeatzeko).

3. Eraikinerako sarbidea mugatzea.

Arau orokor gisa, Nafarroako Parlamentuaren erakinak itxita jarraituko du, bai eta bertako zerbitzu guztiek ere; izan ere, itxialdia 2020ko martxoaren 16ko 15:00etan hasi zen, eta 2020ko maiatzaren 9ra arte (azken hori barne) iraunen du. Itxialdia luzatzen ahalko da, baldin eta aurrez Mahaiak eta Eledunen Batzarrak erabaki hori hartzen badute.

Halere, Lehendakariak eta Mahai nahiz Eledunen Batzarreko kideek baimenduta izanen dute eraikinean sartzea, beharrezkoak izanik nahitaez presentzialki egin beharrekoak diren eginkizunak betetzeko, horretarako ezinbestekoa den denbora-tartean.

Kasuko organoko kideei ere utziko zaie eraikinean sartzen, deitu diren bilkuretan parte hartzeko.

Eta beharrezkoak jotzen diren pertsonen presentzia fisikoa ere baimenduko da, ezinbeste-

koak diren eta nahitaez presentzialki egin beharrekoak diren zereginak egin ditzaten. Halaber, baimenduta dago garbiketa-langileak eta mantentze-lanak egiten dituzten enpresetakoak sar daitezen, horien zereginak egitea ezinbestekoa bada instalazioen funtzionamendu egokirako edo suertatzen diren larrialdiei erantzuteko.

Kasu guztietan, egonaldia mugatuta egonen da beharrezkoak diren eginkizunak betetzeko ezinbestekoa den denborara, eta egonaldia betiere egiten da segurtasun-bermearekin, kutsadura-arriskua ekiditeko beharrezkoak diren bitartekoak ezarrita.

Hori guztia ulertzen da ezertan galarazi gabe Foruzaingoak eraikina zaintzeko egiten duen lana”.

2.- Telelanaren sistema mantentzea, 2020ko apirilaren 27tik maiatzaren 9ra bitarte, beren eginkizunak araubide horretan betetzen dituzten langile guztientzat, langileen jarduera presentziala bilkura presentzialen beharrianetara egokituta eta, betiere, osasun-segurtasuneko neurriak beteta.

3.- Zerbitzu Orokorrei agintzea abiarazi beharreko neurriak abiaraz ditzan, Nafarroako Parlamentuko organoek baliabide telematikoen bidez egiten dituzten bilkurak segurtasun-bermeekin egin daitezten.

4.- Neurri hauek indarra hartuko dute sinatzen diren unean.

5.- Erabaki hau hurrengoei jakinaraztea: foru parlamentariei, Legebiltzarreko langileei, Foruzaingoiari eta Nafarroako Gobernuari.

6.- Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

Iruñean, 2020ko apirilaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

